

## HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

### 2025eko AGORRILAREN 26a

|                       |    |   |
|-----------------------|----|---|
| Kontseilarien kopurua | 15 | Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, agorrilaren hogeita seian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko agorrilaren 08an afixatua izan zen eta 2025eko agorrilaren 08an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen. |
| Hor zirenak           | 14 |   |
| Bozkatzaileak         | 14 |   |
|                       |    |   |

**Hor zirenak:** ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna eta MOUSQUES Bernadette anderea.

**Ahalordea(k):** /

**Falta zirenak:** OLÇOMENDY Betti jaunak

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

#### Aipagaiak

- Aurrekontuaren aldaketa erabakiak
- Euskal Elkargoaren laguntza funtsaren onartzea VVFko bainugelen arraberritzeko
- Euskal Elkargoari laguntza funtsen galdatzea (Larrazkenako berotegia)
- Jendarmeriaren alokatze-kontratuaren luzatzea
- Auzapezaren baimena Larrazkenako obren 8. gehigarria izenpetzeko
- Kintoan Barna Lurralde Lankidetzarako Europar Elkargoari (LLEE) kidetzea
- Eremu publikoko errepideak okupatzeko urteko prezioen finkatzea komunikazio-operadoreentzat
- HEK kontratuen mutualizatzeko hitzarmena Euskal Elkargoarekin
- Gai orotarik

#### **0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA**

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko uztailaren 03ko bilkuraren bilduma onartu du.

#### **1.- 2025-33 DELIBEROA- AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO 1. ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak jakinarazi du beharrezkoa zela zor kitatze gehigarri baten egitea 280422 eta 2804182 kontuetan.

Gainera, 196 operazioko kredituak aldatu behar dira, zahar-etxeko fuel-galdara urgentziaz aldatzeko.

Jaun auzapezak proposatu du aurrekontua horrela aldatzea:

## INBESTIMENDUA

| GASTUAK             |                    | IRABAZIAK                                 |                          |
|---------------------|--------------------|---|--------------------------|
| Artikulua-operazioa | Zenbatekoa         | Artikulua-operazioa                       | Zenbatekoa               |
| 196-231 operazioa:  | +100 000.00€       | 021- Funtzionamendu sailera biramendua    | -695.00€<br>+100 000.00€ |
|                     |                    | 040- 2804182 – Eraikinak eta instalazioak | +160.00€                 |
|                     |                    | 040- 280422 – Eraikinak eta instalazioak  | +535.00€                 |
|                     | <b>100 000.00€</b> |   | <b>100 000.00€</b>       |

## FUNTZIONAMENDUA

| GASTUAK   |                          | IRABAZIAK   |                    |
|---|--------------------------|---|--------------------|
| Artikulua-operazioa   | Zenbatekoa               | Artikulua-operazioa   | Zenbatekoa         |
| 023 – Biramendua inbestimendu sailera   | -695.00€<br>+100 000.00€ | 773 – Ezeztatu diren mandatuak (aitzineko kontu aldietan) edo lau urtean behin gabetzen diren mandatuak | +695.00€           |
| 042 – 681- Diru-zuzkidurak amortizazioei, baliogabetzei eta funtzionamendu-hornidurei | +695.00€                 |   |                    |
| 65561 – Konpentsazio funtsetan eta karguetan parte hartzea                            | +695.00€                 |   |                    |
| 011 - 615221 – Eraikin publikoak  | -100 000.00€             |   |                    |
|   | <b>695.00€</b>           |   | <b>695.00€</b>     |
| <b>GASTUAK OROTARA</b>  | <b>100 695.00 €</b>      | <b>IRABAZIAK OROTARA</b>  | <b>100 695.00€</b> |

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

**ERABAKI du** aurrekontua gainean zehaztu bezala aldatzea.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **1.- 2025-34 DELIBEROA- AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO 2. ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du elektrifikazio-obrak TE 64 enpresari eman zaizkiola eta horien finantzatzeko herriak dirua mailegatzea hautatu duela. Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari esplikatu dio horretarako beharrezkoa dela aurrekontu nagusian TE64ren 2024ko zorraren egoera ezartzea, jatorrizko aurrekontua apailatu ondoan heldua. Erakunde horri hartu mailegua 18 261.67 €-koa da. Beraz, beharrezkoa da aurrekontu-kredituak irekitzea.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

**BAIMENA eman du** TE64k egin elektrifikazio-obretarako.  
**ONTZAT eman du** mailegu baten egitea obra horien finantzatzeko  
**ERABAKI du** aurrekontua gainean zehaztu bezala aldatzea.

## INBESTIMENDUA

2025eko AGORRILAREN 26ko bilduma

| GASTUAK             |                    | IRABAZIAK                               |                    |
|---------------------|--------------------|---|--------------------|
| Artikulua-operazioa | Zenbatekoa         | Artikulua-operazioa                     | Zenbatekoa         |
| 204182 (041)        | 18 281.67€         | 168758 (041)                            | 18 281.67 €        |
|                     |                    | 2804182 (040)                           | 151.00 €           |
|                     |                    | 021 funtzionamendu sailerako biramendua | -151.00€           |
|                     | <b>18 281.67 €</b> |   | <b>18 281.67 €</b> |

#### FUNTZIONAMENDUA

| GASTUAK                                |                    | IRABAZIAK                |                    |
|--|--------------------|--------------------------|--------------------|
| Artikulua-operazioa                    | Zenbatekoa         | Artikulua-operazioa      | Zenbatekoa         |
| 681(042) Diru-zuzkidurak amortizazioak | 151.00 €           |                          |                    |
| 023- Biramendua inbestimendu sailera   | -151.00 €          |                          |                    |
|  | <b>0.00 €</b>      |                          |                    |
| <b>GASTUAK OROTARA</b>                 | <b>18 281.67 €</b> | <b>IRABAZIAK OROTARA</b> | <b>18 281.67 €</b> |

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

#### **5-2025-35. DELIBEROA - EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK LAGUNTZA FUNTS BAT EMATEA – 7.5. NOMENKLATURA**

*Lurralde Elkargoaren Kode Orokorraren arabera, eta bereziki L5216-5 VI artikulua;*

*Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoak kide dituen herriei laguntza funtsaren esleitzeko araudia, 2023ko martxoaren 4ko Elkargoko Kontseiluaren deliberaren bidez onartua;*

*Ikusirik 2025eko ekainaren 21eko Elkargoko Kontseiluaren deliberoa, zeinaren bidez Euskal Hirigune Elkargoak 22.443,20 €-ko laguntza funtsa eman baitzuen VVFko bainugelak berritzeko obretarako (elektrika obrak, lauzak, iturgintza, tindua), Herriko Etxeak egin galdeari jarraikiz;*

Kontuan harturik laguntza funts baten ordaintzeko Herriko Etxearen eta Hirigune Elkargoaren erabakiek bat egin behar dutela,

Txostengilearen aurkezpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

**ONARTU du** Euskal Hirigune Elkargoak eman **22 443,20 €**-ko laguntza funtsa VVFko bainugelen berritzeko.

**BAIMENA eman dio** jaun auzapezari atxikirik den finantza-hitzarmena izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

#### **4- 2025-36. DELIBEROA – LARRAZKENA ZAHAR ETXeko BEROTEGIAREN ALDATZEA – EUSKAL ELKARGOAREN 2023-2026ko LAGUNTZA FUNTS HONDARRAREN GALDATZEA – 7.5 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari aurkeztu dio LARRAZKENA zahar etxeko fuel-galdara urgentziaz aldatzeko proiektua.

Jaun auzapezak 81 3714.04 €-ko (BEZa gabe) aurrekontua aurkeztu du.

2025eko AGORRILAREN 26ko bilduma

Obra horiek zer izanen diren:

- Galdararen eta fuel-sareen desmuntatzea
- Berogailu sareen kentzea  
122Kw-ko murr-berogailu baten instalazioa

Jaun auzapezak proposatu du VVFeko bainugelen berritzeko laguntza funtsaren gainerakoa galdatzea, hots, 7 556.80 € (30 000 €-22 443.20€).

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan:

**ONARTU du LARRAZKENA zahar etxeko galdararen aldatzea**

**GALDATU du 2023-2026ko laguntza funtsaren gainerakoa, hots, 7 556.80 €**

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

### **6-2025-37 DELIBEROA – JENDARMERIAREN ALOKATZE-KONTRATUAREN LUZATZEA – 3.3 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak jakinarazi du Baigorriko Jendarmeriako kasernaren alokatze-kontratua berritu behar dela.

Alokairua automatikoki berrikusia da kasernaren bizitzaren lehen 27 urteetan (bederatzi urteko hiru alokairu-kontratu), jabeak jabetza amortizatzeke parada izan dezan.

28. urtetik goiti, alokairua alokairu-balioaren arabera berrikusten da, baina ezin du indizearen aldaketen arabera indexazioa gairatu. Baigorriko kaserna 1998an eraiki zen, beraz, proposatu alokairua estatuko ebaluazio zerbitzuak estimatu alokairu-balioaren arabera da.

Proposatu urteko alokairua, beraz, 82.800 €-koa da, eta horri, B12 obren ondorioz, 2.602,49 €-ko urteko alokairu gehigarria gehituko zaio, 2025eko urtarrilaren 1etik goiti, bost urtez.

Jaun auzapezak alokairu-kontratu proiektua irakurri du.

Herriko Kontseiluak jaun auzapezaren azalpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan:

- **ONARTU du** 82 800€-ko (urteko) alokairu berria, 2 602,49€-ko alokairu gehigarriarekin 5 urtez.
- **ONTZAT eman du** aurkeztu alokairu-kontratua,
- **ARDURA eman dio** jaun auzapezari alokairu-kontratu berri horren izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

- ABSTENTZIOAK: /

### **7- 2025-38. DELIBEROA - AUZAPEZAREN BAIMENA LARRAZKENAKO OBREN 8. GEHIGARRIA ETA IZATEN AHALKO DIREN BESTE GEHIGARRIEN IZENPETZEKO – 1.1 NOMENKLATURA**

2024ko abenduaren 9ko deliberoaren bidez, auzapezari baimena eman zitzaion Larrazkena zahar-etxearen handitzeko eta berritzeko obra-deialdiak izenpetzeko:

| ZATIA  | Enpresa             | Zenbatekoa (eurotan, BEZa gabe, beharrez, atxiki diren aldaerekin) |
|--|---------------------|--|
| 1. ZATIA -DESEGITEA-ERREPIDEAK ETA SAREAK-OBRA LARRIAK | BATEGIN kooperatiba | 73 882.19 €  |

2025eko AGORRILAREN 26ko bilduma

|   |                      |                    |
|---|----------------------|--------------------|
| 2. ZATIA – ZUREZKO EGITURA ETA APAINDURA              | BATEGIN kooperatiba  | 99 037.99 €        |
| 3. ZATIA – ZURGINTZA -ZINKA                           | BATEGIN kooperatiba  | 113 005.96 €       |
| 4. ZATIA- IRAZGAIZTASUNA                              | SAT ETANCHÉITÉ       | 33 284.60 €        |
| 5. ZATIA- BERINAK                                     | BATEGIN kooperatiba  | 51 994.65 €        |
| 6. ZATIA- IGELTSU LANAK                               | BATEGIN kooperatiba  | 44 888.50 €        |
| 7. ZATIA – ELEKTRIZITATEA -ARGINDAR AZKARRA ETA AHULA | BATEGIN kooperatiba  | 67 388.00 €        |
| 8. ZATIA – BEROGAILUA – AIREZTAPENA - AIRE GIROTUA    | LOGIS CONFORT ERROBI | 183 007.74 €       |
| 9. ZATIA - TINDUA – ZOLA ESTALDURA                    | CBR                  | 257 189.51 €       |
| 10. ZATIA - SARRAILAGINTZA                            | SAMET BESSONART      | 22 990.00 €        |
| <b>OROTARA</b>  |                      | <b>946 669.14€</b> |

Auzapezak jakinarazi du aldaketa batzuk beharrezkoak direla 8. zatirako:

| ZATIA    | Zergatik                                   | 1. gehigarriaren zenbatekoa BEZa gabe | Aldaketa ehunekotan hastapeneko zenbatekoaren arabera |
|----------|--|---------------------------------------|---|
| 8. ZATIA | Egin obregatik beharrezkoak bilakatu obrak | <b>187 870.60€</b>                    | 2.22  |

Bulego ganean pausatu du aldatu zerbitzuen eta zerbitzu gehigarrien zenbatekoa erakusten duen aurrekontua, eta biltzarrari galdatu dio gehigarri horiei buruz iritzia ematea.

Horrez gain, auzapezak galdatu dio Kontseiluari aipatu operazioaren arabeko merkatuen prestaketa, esleipena, gauzatzea eta ordainketari buruzko erabaki guziak hartzeko ahalmena bere esku uztea, baita aldaketak egiteko ere kredituak aurrekontuan sartuak direnean. Gainera, dossier horretarako herriko administrazioa errazteko xedez, biltzarrak eman baimenak eta ordezkariak beharrezkoak eman litezke.

Biltzarrak, luzaz deliberatu ondoan,

**BAIMENA eman dio** auzapezari gehigarriaren izenpetzeko, aurkeztu denaren arabera;

**ERABAKI du**

- auzapezaren esku uztea operazioaren arabeko merkatuen prestaketa, esleipena, gauzatzea eta ordainketari buruzko erabaki guziak hartzeko ahalmena, baita aldaketak egiteko ere kredituak aurrekontuan sartuak direnean.
- auzapezak trabarik balu, bere ordezkariak baimen eta ordezkariak hauek ukanen dituela.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
 Hor ziren kideen kopurua: 14  
 Bozkatu dutenen kopurua: 14  
 ALDE: 14

2025eko AGORRILAREN 26ko bilduma

KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **8-2025-39. DELIBEROA - LURRALDE LANKIDETZARAKO EUROPAR ELKARGOAN PARTE HARTZEKO XEDEA- 7.10 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du 2023ko azaroaren 8ko 2023-60 deliberoaren bidez, Baigorriko Herriko Etxeak onartu zuela Lurralde Lankidetzarako Europar Elkargoaren sorreran parte-hartzea (LLEE), mugaz gaindiko KINTONDARE proiektuan partaide diren Frantziako eta Espainiako herriekin batera: Esteribarko udala, Zubiriko eta Eugiko kontzejuak, Banka eta Urepeleko herriak eta Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoa.

*Egun horretatik, proiektuaren eremua aldatu da: beste partaide batzuek LLEEren gobernantzari batzeko xedea adierazi dute:*

- Aldudeko Herriak (Frantzia),*
- Erroko udalak (Nafarroa),*
- Baztaneko udalak (Nafarroa),*
- Auritzeko kontzejuak (Nafarroa).*

“Kintoan Barna” LLEEren helburua da lurralde partekatu horren inguruan mugaz gaindiko lankidetzara iraunkorra egituratzea, ondarearen, turismo iraunkorraren, laborantza eta hazkuntzaren eta ingurumenaren arloetan proiektu komunak obratzea erraztuz.

Partaide guztiak estatutuen eta osatze-hitzarmenaren proiektuak elkarrekin idazten ari dira, eta laster Eskualdeko Prefeturara igorriko dira ikertuak izateko, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aldi berean, partaide bakoitzari galdegina zaio LLEE hori sortzeko xedea formalizatzeko gutun ofizial bat igorritz. Jaun auzapezak gutunaren proiektua irakurri du.

**Herriko Kontseiluek, aho batez,**

**OROITARAZI DU** 2023ko azaroaren 09ko 2023-60 erabakia, Baigorriko Herriko Etxeak LLEE baten sortzean parte hartzea onartzen duena;

**GOGOAN HARTU DU** proiektuaren partaideen eremua zabaldu dela;

**ONTZAT EMAN DU** proiektuak segi dezan gorago aipatu partaide frantses eta espainol guzietan;

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **9-2025-40. DELIBEROA – EREMU PUBLIKOKO ERREPIDEAK ETA ERREPIDE EZ DIRENAK ETA LANDA BIDEEN OKUPATZEKO PREZIOEN FINKATZEA – 7.10 NOMENKLATURA**

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio komunikazio elektronikoen operadoreek eremu publikoa eta pribatua okupatzen dutela hainbat manieraz: kableak, antenak, zutabeak...

Urteko prezioak finkatu behar dira errepideen eta landa bideen eremu publikoa okupatzeko baita ere errepide ez diren eremu publikokoa. Tarifa horiek Posten eta Komunikazio Elektronikoen R. 20-52 artikulua mugatzen ditu.

Auzapezak proposatu du mugako zenbatekoak aplikatzea.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

**FINKATU DITU** eremu publikoko errepideak eta landa bideak<sup>1</sup> eta errepide ez diren eremu publikoak okupatzeko urteko prezioak, Posten eta Komunikazio Elektronikoen R. 20-52 artikulua mugatu zenbatekoan, hots, 2024rako:

- eremu publikoko errepideetan eta landa bideetan:
  - 48,65 € kilometro lineal bakoitz lurpeko sareetarako (lurperatu lineetarako zorroak),
  - 64,87 € kilometro lineal bakoitz aireko sareetarako (kableak edo bi euskarriren arteko kable multzoak aireko lineen kasuan),
  - 32,44 € metro karratu bakoitz beste instalazioen kasuan.
  
- errepide ez diren eremu publikoan:
  - 1621,82 € km lineal bakoitz, lurpeko eta aireko sareetarako,
  - 1 054,18 € metro karratu bakoitz beste instalazioen kasuan.

**DELIBERATU du** prezio horiek berrikusiko direla urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, obra publikoei buruzko indize nagusiaren urteko aldaketaren arabera

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **10- 2025-41. DELIBEROA – ENERGIA AURREZPEN EGIAZTAGIRIEN MUTUALIZATZEKO HITZARMENA EUSKAL ELKARGOAREKIN – 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du Euskal Hirigune Elkargoak bere Lurraldeko Klima Airearen Energia Plana onartu zuela 2021eko ekainean, baita ere bere Lurraldeko Proiektua klima aldaketei buru egiteko Ipar Euskal Herri erresiliente baten alde eta energia-kontsumoen murrizteko errotik engaiatua den Ipar Euskal Herriaren alde. Karia horretara, Euskal Elkargoak kide dituen herriei eta haien sateliteei (erakunde publikoak, sindikatu mistoak, Tokiko Sozietate Publikoak bereziki) beti eta aberatsagoak diren zerbitzuak, ikusmolde koherentea ukaiteko lurralde mailan.

Energia-aurrezpenen egiaztagirien 5. denboraldi nazionalaren kariatara, eta energia eraginkortasunari lotu erronka gero eta handiagoen parean (adib.: eraikin publikoen berritzea...), Euskal Hirigune Elkargoak bere lurraldeko energia-aurrezpenen egiaztagirien balorizazioa optimizatu nahi du.

Energia-politikaren norabideak finkatzen dituen programazioari buruzko 2005eko uztailaren 13ko 2005-781 Legeak energia-aurrezpenen egiaztagirien dispositiboak finkatu zuen. Honi esker, lurralde kolektibitateak,

haien elkargoek eta erakunde publikoek, energia-aurrezpenen egiaztagiria sor ditzakete beren energia-eraginkortasun obretarako, eta "baitezpadako" eragileen artean (energia-hornitzaileak) balorizatu.

Bizkitartean, dosierren muntatzea eta aurkeztea konplexua eta teknikoa gelditzen da, bereziki arrazoi hauengatik:

- hautagarri diren operazioen aniztasunagatik (200 fitxa estandarizatu baino gehiago);
- energia-aurrezpenen egiaztagirien nazio gunearen eskaera zorrotzengatik

Gainera, gero eta kontrol gehiago bada, eta kario dira eta antolatzeko zailak.

Horrela, Euskal Elkargoak, interesa adierazteko deialdia zabaldu ondoan, "Certynergie Solution" markarekin egin lankidetzaren batean bermatuko da, eta horrek dosierren aurkezpena eta kontrolen kudeaketa bermatuko du 5. denboraldiaren bukaera arte, hau da, 2025eko abenduaren 31ra arte. Partaidetza hori luzatzen ahalko da 6. denboraldirako Euskal Elkargoak eta Certynergiek nahi ukanez gero.

Bestalde, energia-aurrezpenen egiaztagiri dispositiboaz baliatu eta obratu nahi duten herri batzuek eta satelite zenbaitek Euskal Elkargoari dei egin diote. Beraz, haien praktikak hobeki ezagutzeko, galdeketa bat igorri zaie 2025eko 1. seihilekoan. Honen emaitzek baieztatu dute dispositiboaren konplexutasuna egiazko traba bat zela energia-aurrezpenen egiaztagirien balorizaziorako.

Testuinguru horretan du Euskal Hirigune Elkargoak elkargo operazional esparru bat proposatu, energia-trantsiziorako bere lurralde estrategiaren barne dena, laguntza mutualizatu eta eraginkorraren zerbitzura:

- lurraldeko herrientzat eta heien sateliteentzat energia-aurrezpenen egiaztagiriarentako sarbidea errazteko;
- Certynergiek Euskal Elkargoari proposatu tarifa finkoaz eta merkeaz baliatzeko energia-aurrezpenen egiaztagiriarentako dosierren balorizaziorako;
- desmoxa administratiboan eta baitezpadako kontrolen bermatzeko, Certynergiek bidez;
- balorizazio optimizatua eta segurtatua bermatzeko.

Laguntza horren baldintzak atxikirik den hitzarmenean aurkeztuak dira, eta bertan alderdi bakoitzaren eginkizunak eta engaiamenduak deskribatuak dira.

Euskal Elkargoaren laguntza (Trantsizio Energetikoaren eta Planifikazio Ekologikoaren Idazkaritza Nagusiaren baitan energia-aurrezpenen egiaztagiriarentako dispositiboaren ardura duen agente baten laguntza teknikoa, administratiboa eta finantza mailakoa) proposatua da hartzaileen parte hartze baten truke kudeaketa-gastuetarako, energia-aurrezpenen egiaztagirien baloraziorako ukanen duten zenbatekoaren % 8an finkatua.

*Ikusirik 2005eko uztailaren 13ko 2005-781 Legea, energia-politikaren norabideak finkatzen dituena;*

*Ikusirik 2010eko uztailaren 12ko 2010-788 Legea, ingurumenaren aldeko engaiamendu nazionalari buruzkoa;*

*Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki L.2224-34, L.5211-10 eta L.5216-5 artikulua;*

*Ikusirik Energia Kodea, bereziki L. 221-1 eta L. 221-7 artikulua;*

*Ikusirik 2010eko abenduaren 29ko 2010-1664 dekretu aldatua, energia-aurrezpenen egiaztagiriari buruzkoa;*

*Ikusirik 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 prefetaren erabakia, Euskal Hirigune Elkargoaren sorkuntzari buruzkoa eta haren eskumenak finkatzen dituena;*

*Ikusirik 2018ko abenduaren 15eko Elkargoko Kontseiluaren deliberoa, 2018ko urtarrilaren 1etik goiti ingurumenaren eta bizi ingurumenaren babeserako eskumena betetzea erabaki duena: aire-kutsaduraren kontra egiteko; harrabots trabagarrien kontra borrokatzeko; Euskal Hirigune Elkargoko lurralde osoan energia-eskaera kontrolatzeko ekintzak sustengatzeko;*

*Ikusirik 2018ko abenduaren 15eko Elkargoko Kontseiluaren deliberoa, energia eta ekologia trantsizioari egin ekarpenari buruzko hautuzko eskumenari buruz;*

*Ikusirik 2020ko uztailaren 31ko Elkargo Kontseiluaren deliberoa, zeinaren bidez zenbait eskumen eman baitira Kontseilu Iraunkorrari, bereziki "Elkarte, erakunde publiko edo pribatu, kolektibitate publikoen aldeko finantza-hitzarmen guztiak sinatzeko baimena emateko, baita horien gehigarriak ere";*

**2025eko AGORRILAREN 26ko bilduma**

*Ikusirik 2021eko ekainaren 19ko Elkargo Kontseiluaren deliberoa, zeinaren bidez onartu baita Lurraldeko Klima Airearen Energia Plana;*

*Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoaren 2021-2026 Lurralde Proiektua, 2022ko uztailearen 9ko Elkargo Kontseiluaren delibero bidez onartua, bereziki "Ipar Euskal Herri erresiliente baten alde: gure baliabideak zaintzea" 1. ardatzeko "energia positiboko lurralde bihurtzea" 1. engaiamendua;*

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** atxikirik den hitzarmena, Euskal Hirigune Elkargoko herriei eta haien sateliteei energia-aurrezpenen egiaztagiriak balorizatzeko proposatu laguntzari buruzkoak;
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari edo haren ordezkoiari partaideekin dagozkien hitzarmenak izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

#### **AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:**

- 45. erabakia: zahar-etxeko galdara aldatzeko aurrekontuaren izenpetzea - 2025eko uztailearen 28a
- 6. erabakia: 2025eko uztailearen 28an, bira-biren alokatzeko prezioaren finkatzea
- 

#### **GAI OROTARIK**

/

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea.

Bilkuran hartu deliberoak 33tik 41era zenbakiak ziren.

|                                |   |
|--------------------------------|---|
| <u>Auzapezaren izenpedura:</u> | <u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u> |
|                                |   |